

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
0	0	16	1
positibo berri	hildako	positibo berri	hildako
2.313	5	8.958	76
positibo guztira*	hildako EAEn	positibo guztira	ospitalizatuta
*Hernanin 60 Astigarragan 20		Sendatuak: 17.530 EAEn; 4.918 Naf.	

Morauren poesia errezitaldiak eta Xabi Solanoren musika emanaldiak emango diote bukaera maiatzari

Gaur, 18:00etan hasita, Andoni Tolosa, 'Morau' musikariaren 'Nire oinen atzetik' poesia errezitaldia ikusi ahal izango da Hernani Kultura online programazioaren aurrean. Solanorena ostiralean izango da. Ekainan, gehiago izango dira.

HERNANI KULTURA

Hernani Kulturak maiatzerako prestatutako online programazioarekin bukatzeko azken bi emanaldiak gaur eta ostiralean ikusi ahal izango dira. Dena den, ekainean oraindik ere jarraipena izango du ekimenak.

Poesia gaur, Moraurekin; musika etzi, Solanorekin

Asteazkenetako orain arteko saioak bezala, arratsaldeko 18:00etatik aurrera ikusi ahal izango da gaur Andoni Tolosa, *Morau* artistaren emanaldia. Oraingoan, poesian murgilduko da, eta *Nire oinen atzetik* errezitaldia emango du.


Hau ikusteko, ohi bezala, Hernaniko Udalak YouTubean daukan kanalean sartu beharko da, 18:00etan, eta bideoa bilatu.

Kronikak ere, albiste honetan bertan txertatuko du bideoa www.kronika.eus webgunean, emanaldia topatzea errazteko asmoz.

Hurrengo emanaldia, eta maiatzeko programazioari bukaera emango diona, Xabi Solano musikariarena izango da. Ostiralean izango da hori, arratsaldeko 19:30etan hasita.

Ekainerako, beste bost saio

Koronabirusari aurre egiteko ezarritako konfinamendu egoeran ere, kulturaz gozatzeko aukera eman nahi izan du Udalak ekimen honekin. Maiatzean jarri zen martxan online programazioa, eta ordutik, ipuin saioak, literaturari buruzkoak, musika emanaldia, dantza emanaldiak... ikusi ahal izan dira asteazken eta ostiralero.



Andoni Tolosa, 'Morau' ikusi ahal izango da gaur, 18:00etan hasita.

Ekainean ere beste horrenbeste izango da. Hasteko, ekainaren 3an, Beatriz Egizabal eta Kontukantorekin ipuin orduaz gozatu ahal izango da, 18:00etan. Ekainaren 5ean, berriz, Vito Rogado aktorearen antzerki ema-

naldia izango da, 19:30etan. Ekainaren 10ean, 18:00etan, bertsoari txanda izango da: Eñaut eta Unai Agirre anaiek *Bertso zahar eta berriak*, *auskalo zeinek eginak* emanaldia egingo dute. Ekainaren 12an, bestalde,

Nagore Legarreta argazkilariaren erakusketa ikusi ahal izango da arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Eta online programazioari bukaera emateko, ekainaren 19an Ainhoa Larrañaga musikariaren emanaldia izango da 19:30etan. **K**

Hainbat kirol instalazio erabilgarri jarri ditu Udalak, kiroldegiko atek oraindik irekiko ez baditu ere

Atzotik erabilgarri daude skate pista, aire libreko pelotalekuak, tenis pista eta Santa Barbarako eskalada gunea.

HERNANI KIROLA

Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirolerako Saitetik jakinarazi dute erabilgarri daudela, atzotik, kirola egiteko aire libreko hainbat kirol instalazio. Era berean, las-ter kiroldegiko zerbitzuak erabiltzen hasteko moduan izango dira herritarrak, nahiz eta

oraindik atek itxita mantenduko dituen beste pixka batean.

Lau gune, irekita

Atzo bertan, herritarrek erabiltzeko ireki zituen Udalak skate pista, aire libreko pelotalekuak, tenis pista eta Santa Barbarako eskalada gunea. Beraz, aurrerantzean erabilgarri izango dira.

Kiroldegiko instalazioak erabiltzeko, aldiz, itxoin egin beharko da.

Erreserbak online, kiroldegirako

Konfinamendu egoera arintzeko bigarren fasean sartuta, «kirol instalazioak irekitzeko aukera» badela baieztatu du Udalak, «neurri zorrotzak beteta». Horri lotuta, «Udala neurri hauek nola bete aztertzen ari» dela aurreratu du, eta hori horrela, «neurri horiek modu egoki eta seguru

batean bete ahal izan arte ez ditu kiroldegiko atek irekiko», azaldu duenez.

Hala ere, kiroldegia irekitzen denerako aurretik hitzordua eskatzeko sistema martxan jarri da. «Laister, kiroldegiko espazio eta zerbitzu desberdinen erreserba online egiteko aukera izango duzue». Baina, horretarako, kiroldegiko erabiltzaileen datuak eguneratuta eduki behar dituzte kiroldegian, eta beraz, datuak biltzeko epea ireki dela jakinarazi dute.

Datuak eguneratzen, erreserbak online egin ahal izateko

Hain zuzen, sistema martxan jartzen denean erreserbak online egin ahal izateko erabiltzaileen datuak eta emaila beharko ditu kiroldegiak. Horregatik, datuak eguneratzeko, kiroldegiko langileak bazkideei deiak egiten ari dira.

Dena den, edozein zalantza argitzeko, 660 776 918 zenbakira deitu edo ainhoa-m@hernani.eus helbidera idatzi daiteke. **K**

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

GAUR Giroa eguzkitsua izango da, eta tenperaturak gora egingo du; hegoaldean gehiago, kostaldean baino.
Min. 13° / Max. 24°

BIHAR Eguzki-giroa nagusituko da berrito, eta tenperaturak gora egingo du, dezente, baina kostaldean ere.
Min. 14° / Max. 28°



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



«Engainatu egin gaitu, eta ELAtik harremana moztu dugu»

Fatxadak edota etxebizitzak berritzen lan egiten duen Bekabi II enpresak hainbat soldata zor dizkiela langileak.



Soldatak zor zaizkiela diote langileek.

HERNANI EKONOMIA

Antolatzen eta protestan hasi dira Hernaniko Bekabi II enpresako hainbat langile, soldatak zor zaizkiela argudiatuta. Fatxadak edota etxebizitzak berritzen dituzte, besteak beste, eta hogeiren bat langileren bueltan dauzka, Manu Tena ELAko arduradunaren esanetan. «Engainatu egin gaitu, eta ELAtik harremana moztu dugu», azaldu du. Langileak asanbladan biltzekoak ziren atzo, ordezkariak izendatu eta kontsultarako epealdia hasteko.

Kronika enpresarekin harremanetan jartzen saiatu da, baina ez du erantzunik jaso.

«Egoera korapilatsua»

Tenak azaldutakoaren arabera, UGTk urte hasieran egindako hauteskunde sindikaletan jakin zuten ELA sindikatuak egoeraren berri. «2019ko udako ordainsariaren erdia, Gabonetako ordainsari osoa, urtarreleko soldata eta abenduko soldataren bat zorretan zituen enpresak. Egoera korapilatsua zen».

ELAK delegaturik izan ez arren, enpresarekin harrema-

«Gezurretan» ibili izana egotzi dio ELAK enpresari.

netan jarri zen, egoera bideratzen laguntzeko. Tenak azaldutakoaren arabera, enpresaren erantzuna izan zen «lan faltarik ez» zegoela, baina enpresak, sari, «bizilagun elkarteekin lan egiten» duela, eta «habetako askok ez diotela ordaindu». Horren aurrean, ELAtik eskatu zitzaion, «ahal zen neurrian, pixkanaka, ordainketak egiten hastea. Ur-tarrila ordaindu zen. Baina gainerako guztia ez, eta ezinezkoa izan da egoerari gehiago eustea».

Hortik aurrera, gainera, «gezurretan» ibili izana egotzi dio ELAK enpresari. «2019ko irailaz geroztik ez ditu ordaindu Geroako pentsioak. Iazko 10Tak egin ditu langileek ordainsariak oso-

rik jaso izan balituzte bezala, eta ez ditu ordaindu...».

Horrez gain, Manu Tenak dio «dirudienez, hornitzaileei ere dirua zor diela».

Langileak antolatzen

Oraindik zer gertatuko den ez daukate argi. «Langile batzuei Lan Erregulaziorako eskutitza bidali zaie orain. Badirudi, hala ere, bost bat langileri ordaintzen diela enpresak, baina ez gainerakoei. Noski, batez-beste 12.000 euro ingurura arteko zorrak ari gara, soldatei dago-kienez. Langileek ez dute beren kabuz aldegin nahi enpresatik, kalte-ordaina ere jaso gabe».

Gauzak horrela, langileak antolatzen hasi dira. «Hamaika afiliatu badauzkagu. Asanbladan bildu eta hiru ordezkari aukeratzea da orain asmoa, kontsultarako epealdia hasteko». Nola jarraituko duten ikusteke dago oraindik. **K**

Emozioen atzean dauden beharrak identifikatzeko saioa, gaurko Foroan

Zoom bidezko talde txikietan egin nahi du gaurko saioa Tratu Onen Herriak, 18:00etan. Izena emateko: hernanitoherri@gmail.com

HERNANI TRATU ONEN FOROA

Arremanitz kooperatibak beste foro bat antolatu du gaurko. Helburua izango da, «itxialdian bizitako egoera berriek eragindako emozio zurrumbiloen atzean ezkutitzen diren beharrak identifikatzea», behar indibiduala-tatik hasi, eta behar kolektiboetara iristeko.

Giro goxoan aritzeko, talde txikiak antolatu nahi dituzte, eta beraz, izena emateko eskatu dute, hernanitoherri@gmail.com

helbidera idatzita. Foroa gaur egingo da, 18:00etatik 19:30etara, Zoom bidez.

Sostengurako materiala eta komunitatearen indarra

Saioan behar indibidualak eta kolektiboak identifikatuko dira. Hasteko, norberaren beharrak identifikatu eta sostengurako materialak izan daitezkeen materialak partekatuko dira. Batetik, Berexi Art, Uxue Bereziartua artistarekin elkarlanean egindako bideo bat, eta

bestetik, *eneritz.ilustratzaile*-aren opari lagungarri bat.

On zerk egiten dugun edota zeren falta sumatu dugun aztertuko da, besteak beste.

Ondoren, «zaintzen krisia horren agerian geratu den garai honetan», komunitatean gertatzen diren beste errealitate batzuei erreparatzeko tartea ere hartuko da, ikusteko, zein behar berri sortu diren edo zeintzuk areagotu diren, eta antolatuta gauden edo ez. «Komunitateak egiten gaitu indartsu, eta ezinbestekoa izango da komunitatearen beharrei ere erreparatzea».

Saioa Udalarekin eta Berdintasun Kontseiluarekin elkarlanean antolatu da. **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **PRAXKU URRUZOLA LOINAZ**
(Elutxeta sagardotegia)
Atzo hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
- Goian bego -
Emaztea: Miren Ansa, seme alabak: Jone, Juanjo eta Begoña, Roke (†) eta Karmen, Eugenio eta Axun, Iñaki eta Marijo (†), anai-arrebak: Maritxu (†) eta Jesus (†), Agustina eta Joxe Manuel (†), Eugenio eta Angelita, Joxe Mari (†), Lupe eta Joxe (†) eta gaienerako ahaideak ahaideek.
Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTEAZKENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, MIKEL GOIANGERUAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Urnietan, 2020ko maiatzaren 27an
Helbidea: Elutxeta baserria
OHARRA: Gorputz beila VASCONGADA EHORZKETA tanatorioan dago Errekalde auzoan gaur eguerdiko 12:30ak arte.

♻️ **PRAXKU URRUZOLA LOINAZ**
Gerra denboran hazia / haitz arteko Elutxetan Lana gogotik egiten / ikasi zenuen umetan Burua, bixta argia / abila hitz jokoetan Bizi hobearen alde / borrokan ta ametsetan Baserri landarezale / sagar ardoa zainetan Zure kokorra eskutik / izan dezu bide hontan Gure bihotzetan beti / ariko zara bertsoan.
ZURE BILOBAK
Urnietan, 2020ko maiatzaren 27an

† **PRAXKU URRUZOLA LOINAZ**
(Elutxeta sagardotegia)
Atzo hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
- Goian bego -
Haren bilobak: Araitz eta Erwin, Urtzi eta Naiara, Uxue eta Igor, Amairu eta Alberto, Aiala, Jasone eta Beatriz, Garazi eta Unai, Irati eta Jokin, Mikel, Uxue, Jon (†) eta Ainhoa; birlobak: Inhar, Aetz, Intza, Lur, Enai, Naira, Neia, Ianitz, Iera, Xuhar eta Oier.
Urnietan, 2020ko maiatzaren 27an

☀️ **PRAXKU URRUZOLA LOINAZ**
Zurekin konpartitutako momentuak betirako gordeko ditugu gure bihotzetan.
Mila esker, Praxku.
IÑAKI ETA IXIAR
Hernanin, 2020ko maiatzaren 27an

☀️ **PRAXKU URRUZOLA LOINAZ**
Betiko izango zaitugu gogoan
ETXABE-ZERAIN SENDIA
Hernanin, 2020ko maiatzaren 27an

IRAGARKI MERKEAK

Irakasle titulatuak lehen eta bigarren hezkuntzako klase partikularak emateko prest. Online nahiz presentzialak. Deitu: **943 12 41 28 (ez bagaude erantzungailuan utzi zure mezua)** **Iñigo Royo Masajlsta**. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**